


**AMERIKAREN ARRAKALAK****Mikel Reparaz****Bilduma:** Saiakera**Formatua:** 14 x 20,50 cm.**Orrialdeak:** 449**Koadernaketa:** paperezko azala**Argitalpen data:** 2024/11/06**ISBN:** 978-84-9868-904-4**SALNEURRIA (BEZ gabe): 22,12€****SALNEURRIA (BEZ barne): 23,00€**AEBak, GAURKOTASUNA, ARRAZISMOA,  
LANDA-KAZETARITZA

9 788498 689044

**Sinopsia**

Ekaitzaren erdian idatzitako liburu honen xedea, alabaina, ez da Mendebaldearen gainbehera ekarri dezaketen zoritxar politikoetan sakontzea. Ez euskal korrespontsal baten abenturak kontatzea. Liburu hau ez da ari faxismoaz edo inoiz desagertu ez den antifaxismoaz soilik. Ez da Donald Trumpi buruzkoa, ezta kontrakoa ere. Orrialde hauek gatazka bat dute erdigunean, gatazka historiko bat. Azken urteotan Estatu Batuetan gertatutakoa ulertzen laguntzen duen gatazka, baita datozen urteotan gerta litekeena ere. Lehen demokrazia modernoaren alde ilunenari buruzko liburua da hau, edo agian haren aurpegi bistakoenaren gainekoa. Iraultzatik herrialde berri bat eraiki zuten desberdintasunez, supremazia zuriaren botereaz eta hasieratik hari aurre egin dion erresistentziaz dihardu. Eta, bai, baita trumpismoak berriz handi egin nahi duen Amerika kontzeptuaz ere. Amerika ez baita herrialde edo kontinente bat, arrakalaz betetako ideia bat baizik.

**Egileaz**

**MIKEL REPARAZ** (Arbizu, Nafarroa, 1975) nazioarteko informazioan aditu eta aritutako kazetaria da. Unibertsitateko ikasle zelarik Balkanetako gerraren ondorioak bertatik bertara ezagutu zituen, eta ordutik bidaiatzen, ikasten eta informatzen eman du ibilbide profesionala. Lehen pausoak Euskaldunon Egunkarian, Iruñeko Euskalerrria Irratian eta Nafarroako Diario de Noticiasen eman zituen, baina EITB izan da urte luzez bere lantokia. Bruselan eta New Yorken korrespontsal lanak egin ditu euskal irrati eta telebista publikoarentzat, eta etengabe aritu da munduan zehar era guztietako gertakizun, krisi eta gatazkez informatzen. Estatu Batuetan bost urtez bizi izan da, eta denbora horretan berrogeita hamar estatuetan barneratu da, Floridako heriotza-korridorearen iluntasunetik Alaskako ilunabarrik gabeko egun amaigabeetara.